



Sakristanekoa etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Sakristanekue



43°11'9"

2°35'27"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... una casa titulada “Sacristan-
coa”... del barrio de Andicon
de la anteiglesia de Berriz...
consta de piso llano destina-
do a cuadra y de tejabana y
horno accesorios por su lado
Oriental; de piso principal con
cocina, sala, dos cuartos y un
departamento destinado a
pajar y mide una planta solar
de ciento cincuenta y tres metros
cuadrados...”

DJE 7/176 or. (1905)

Andikoako Andra Mari (**Ikus Andikoako Andra Mari**) ermitaren ondoan zegoen frontoiaren a-tzealdean kokaturik aurkitzen dugu *Sakristanekoa* etxebizitza. XIX. mendeko erdialdera agertzen zaigu erregistratuta lehenbizikoz, Berrizko Udalak egindako eraikin-errolan: *Sacristan de Andicon* (1857, BUA, Viv). Jaso ditugun beste aipuak XX. mendekoak dira, eta horietan, ko-fradiari edo Amabirjiñari zegokion aipamena desagertzen da: *Sacristancoa* (1905, DJE, 7/ 176. or.), *Sacristaukua* (1910, BUA, RU) eta *Sacristanecua* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, *Sakristanekue* forma erabiltzen dute ahozkotasunean.

Bi pisu eta ganbaradun etxea da. Behekoan korta kokatu zen eta gainean, etxebizitza. Erabilitako materiala harlangaitza izan zen hormak

egiteko eta leihoak, ateak eta etxearen kantalak, osterak, harlanduaz burutu zituzten. Bi isurialde eta miru buztandun teilatua dauka, oso hegal zabalarekin, horretarako beharrezkoak izanik egurrezko besoak. Albo batean aterpea eta labea ditu itsatsita. Fatxada nagusia modu bitxian dauka antolatua, kortarako sarrera alde batean dagoen harrizko dinteldun ate batetik egiten delako eta etxekoa, berriz, harlanduz burututako harmailadun irtengune batetik. Azken hau, segurutik, etxea egin zenean baino beranduago egindako obra baten ondorio izanik, teilatuaren hegal zabala moduan, derrigorrezkoa zelako eskailerak babestea. Etxea XVIII. mende amaierakoa izan daiteke, XIX. mendean berantolatua.

toponimia

Etxe izen berria -eneko amaiera hartu baitu. XIX. mendea baina lehenagoko etxe izenean -ena erabiltzen zen inguru honetan baina XX. mendean, berriz, -eneko nahiz eta erredundantea izan.